

1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	19.479 biztanle
Zabalera:	3,77 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Iruña (ikus mapa)
Udalerriak:	Iruña (6. barrutia)

2. Komunitatea eta osasuna

Txantreako eskualde oinarrizkoa Iruñeko udalerrian dago kokatua, Arga ibaiaren eskuinean; jendetsuenetariko bat da. Bertako biztanleriaren piramideak, 35etik 60 urte bitarteko adin taldeak nagusi badira ere, aski itxura betiberdina du, zahartzera jotzen duen biztanlerietan ohi denez. Eskualde oinarrizko hau da zahartzarako mendekotasun indizea (%40,3) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen etheen portzentajea (%43,9) handienak dituztenetarik.

Txantreako dago emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, haurren obesitatearen prebalentziari dagokionez (%5,8) eta diabetesa diagnostikatua duten pertsonen dagokienez (%8,0). Behin berriz, gainerako adierazleak Nafarroako batez bestekoan kokatzen dira, nonbait hor.

Nafarroa2000 zonifikazioan Txantreako eskualde oinarrizkoa Iruñeko eskualdean baitago, aurrekoen

gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Iruñeari dagozkion adierazleak, bizimoduari, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %39,1ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (*binge drinking*) eta %20,8k kontsumitzen dute tabakoa egunero.


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonen, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[→ Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Iruñeko eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleetarako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia arriskuaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia arriskuaren atalasea, 2015ean: 5.150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduerara fisikoki urria edo batere egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 onzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 19,0 eta gizonezkoak 9,2); **16.** Obesitatearen prebalentzia doituua 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score $\geq +2$); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doituua (T. gordina: 9,5); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua duten pertsonen %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleria; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotza-tasaren arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.